BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIKO GALETARAKO SOINU-MATERIALAREN ALOKAIRUA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Kursaaleko auditoriumean egingo diren Inaugurazio, Klausura eta Donostia Saria emateko galetarako soinu-materiala hornitzea da, alokairu-erregimenean, muntaketa, desmuntaketa, laguntza teknikoa eta mantentze-lanak barne hartuta. Halaber, barne egongo dira Sail Ofizialera gonbidatutako taldeen aurkezpenak, arratsaldez eta gauez izango direnak.

Honako eginkizun hauek beteko dira:

a) 1. Taldea:

   a. Soinu-materiala alokatzea Kursaalen egingo diren Inaugurazio, Klausura eta Donostia Sariaren galak ospatzeko, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eta plegu honetan deskribatutako material tekniko guztien garraioa barne.

   b. Teknikari-zerbitzua, muntaketarako, desmuntaketarako eta laguntza teknikorako, baldintza teknikoen pleguan adierazitako banakapenaren arabera. Lan horiek egiteko kontratu honen mende alokatutako materiala eta Kursaaleko materiala baliatuko dira.

b) 2. Taldea: Garraioa, materialaren alokairua, muntaketa eta desmuntaketa eta teknikarien zerbitzua, Kursaaleko auditoriumean arratsalde eta gaueko saioetan egingo diren Sail Ofizialera gonbidatutako taldeen aurkezpenetarako.

c) Material gehigarria: Kursaal Zentroko Auditorioan egingo diren Inaugurazio, Klausura eta Donostia Sariaren galetarako eta Victoria Eugenia antzokiko gala eta aurkezpenetarako deskribatutako materialaren garraioa, alokairua eta zerbitzua. Material horren alokairua edizio bakoitzaren beharren araberakoa izango da.

II.- BEHARREZKO MATERIALAK

Kontratuak biltzen dituen zerbitzuak eman ahal izateko, honako material hauek erabili eta kontratura atxiki beharko ditu esleipendunak:

1. TALDEA: Inaugurazio, Klausura eta Donostia Sarien galetarako oinarrizko ekipamendua.

- *P.A. SISTEMA* gutxienez 16.000W-ko gama altuko markarekin (Meyer Sound, d&b, EAW, L-Acoustics…), elementu eta ezaugarri hauek dituena:

  - Sistema nagusiak takatuta joan behar du agertokiaren alboetan, Top-ak azpigrabeen gainean jarrita eta 2m x 1m-ko oholtzan bermatuta.
  - Lau bideko sistema.
  - 18” bikoitzeko lau azpigrabe, gutxienez.
  - Hiru bideko zortzi Top gutxienez, 10”-ko bi graberekin gutxienez.
  - Gutxienez frontillezko bi kaxa, gutxienez 6”-ko bi graberekin”.

- *MONITORE-SISTEMA* anplifikazio independentea duten gutxienez 10 unitaterekin, baita honako kokapen hauetarako behar diren euskarriekin ere:

  - Agertokiaren atzealdea
  - Artistak eszenara sartzea
  - Gonbidatuen jarraipenerako pantaila-eremua (brujuleoa)
  - Gama altuko marka (Meyer Sound, d&b, EAW, L-Acoustics…).

- *IN EARS MONITORIZAZIO SISTEMA*: Agertokirako gutxienez 8 In ears, gama altuko markakoa eta ERRADIO FREKUENTZIA SISTEMAn integratua.

- *KONTROL-MAHAIEN SISTEMA*: Gama altuko kontrol-mahai digitalen sistema, elkarren artean konektatuta, erruteatzeko gutxienez 140 kanaleko ahalmenarekin eta honako elementu hauekin:

    - FOH MAHAIA:
        - Gutxienez 48 kanal eta 24 bus
        - Soinu-kabinaren barruan egon behar du
        - Tablet bidezko urruneko kontrol-sistema
    - MONITORE-MAHAIA:
        - Gutxienez 80 kanal eta 48 bus
        - Ezkerreko sorbaldan egon behar du.
    - ITZULPEN-MAHAIA:
        - Gutxienez 16 kanal eta 16 bus
        - Itzulpen zentraleko kabinan egon behar du.
    - AGERTOKIKO STAGE RACK-A
        - Gutxienez 48 kanal
        - Mikrofonia-sistemaren ondoan egon behar du.
    - UM-KO STAGE RACK-A
        - Gutxienez 16 kanal eta 16 irteera
        - UMren konexio-gelan egon behar du.

- IRRATI-FREKUENTZIEN SISTEMA frekuentziak aztertzeko eta koordinatzeko gaitasuna duen software batek kontrolatua, gama altuko mikrofonia- eta monitorizazio-sistemak integratuz.

    - Hasi gabeko mikrofonia-sistema, gutxienez 30 kanal eta hurrengo igorle eta kapsulak dituena.
        - 12 kapsula hegal kardioidezkoak, petaka motako igorlea dutenak (DPA 4080 motakoak)
        - 6 kapsula omni diademarekin, petaka motako igorlearekin (DPA 6066 motakoak)
        - Zise superkardioidearen lepoko 6 kapsula, petaka edo dado motako igorlearekin (DPA 4098 motakoa)
        - Eskuzko 6 kapsula kardioide, igorle integratuarekin (Shure SM58 motakoa)
    - Antenen sistema eta antenen banaketa, eremura eta eszenografiara egokitua.

- MIKROFONIA-SISTEMA KONBENTZIONALA:

    - Zisne-lepoko 2 mikrofono, euskarri zuzenekoak eta oinarri biribilekoak (DPA 4098 mota).
    - Eskuko 2 mikrofono (Shure SM58).

- ITZULPEN-SISTEMA, honako elementu hauez osatua:

    - 4 itzulpen-postu, elementu hauek osatuak:
        - 2 mikrofono itzultzaileentzat, hizkuntzaren arabera.
        - 2 entzuketa entzungailuekin, hizkuntzaren arabera.
        - Postu bakoitzean bi seinale entzuteko kommutazio-aukera.
    - Postu hauetara seinalea bidaltzea:
        - Gaintitulatzea
        - UM
        - Monitore-mahaia.
- Audio-postu guztietarako interkomunikazio-sistema, mikrofonistentzako hari gabeko 2 sistema barne, gutxienez. (Cler Com.)
- CUBASE motako audioa editatzeko sistema edukietarako.
- Abisuak grabatzeko CUBASE motako abisu pertsonalizatuak grabatzeko sistema.
- Zerbitzua emateko behar den beste edozein konexio edo bidalketa mota.

Hemen zehazten diren modeloak eta markak orientagarriak dira. 2. gutun-azalean dagokion atalean aurkeztutako material-mota zehaztuko da.

2. TALDEA: Sail Ofizialeko filmen aurkezpenak.

- PA 16.000 W
- FOH 32CH 16BUS kontrolerako mahaia.
- Shure SM58 motako 2 mikrofono, bat kabinan oina duena eta bestea spare-koa.

MATERIAL GEHIGARRIA: edizio bakoitzaren beharren arabera eskatuko diren material gehigarriak

- 32 kanaleko soinu-mahaia, agertokiko rack-arekin.
- In ear agertokirako.
- Mikrofonodun hari gabeko sistemak.
- Shure Sm58 motako mikrofono konbentzionala.
- Monitorea.
- Haririk gabeko intercom.
- Hari gabeko sistema gitarretarako eta beste erabilera batzuetarako.

III.- MATERIALA BIRJARTZEA

Material teknikoa alokatzeko epean, kontratistak bermatu beharko du elementu horiek material-edota fabrikazio-akatsik ez dutela. Kontratistak bere gain hartu beharko ditu konponketak edo ordezkapenak, kontratuaren xede diren elementuetan egon daitekeen edozein akats konpontzeko. Berariaz bere kontura izango ditu horretarako egin ditzakeen gastu guztiak, hala nola langile-gastuak, joan-etorriak, garraiobideak, etab.

Matxurak izan dituen edo egoera txarrean iritsi den material teknikoa ahalik eta lasterren konpondu eta/edo birjarriko da, eta ezin izango da inolaz ere 2 orduko epea gainditu, abisua jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratistak ez badu akatsa konpontzen adierazitako erantzun-denboran, Zinemaldiak, hirugarren baten bidez, elementu akastunak ordezkatu ahal izango ditu, eta kontratistak jasandako kostu eta gastu guztiak itzultzeko eskubidea izango du.

IV.- BEHARREZKO GUTXIENEKO LANGILEAK

Enpresak kontratua gauzatzeko atxikiko dituen langileen zerrenda eskatzen da, curriculum vitae-ekin batera. Curriculum horietan zehaztuko dira antzeko lanetan edo kontratuaren xedearekin lotutako prestakuntza eta esperientzia.

Kontratuak biltzen dituen zerbitzuak eman ahal izateko, beharrezko gutxieneko pertsonala honako hau izango da:

1.- Zerbitzuaren koordinatzailea – Talde teknikoaren burua

Koordinatzaile tekniko bat, gutxienez 3 urteko esperientzia frogagarria duena antzokietan eta/edo auditorioetan soinu-muntaiak koordinatzeko eta gainbegiratzeko lanetan, Donostia Zinemaldian egindako antzeko ezaugarriak dituzten galak zuzenean eta telebistarako egiten. Lana Ekoizpen departamentuaren jarraibideen arabera egingo da, eta batez ere honako eginkizun hauek izango ditu:

- Zinemaldiaren solaskidea izatea; kontratua esleitzen denetik Zinemaldia amaitu arte telefono mugikorra eta posta elektronikoa eskuragarri izanik.
- Aurretiazko bileretara joatea talde teknikoarekin eta RTVEko taldearekin.
- Talde teknikoaren ardura hartzea, zerbitzuaren funtzionamendu eta jardunbide zuzena bermatuta.
- Galetan inplikatutako hirugarrenekin koordinatzea.

2.- Galetarako talde teknikoa

Langile guztiek gutxienez 3 urteko esperientzia frogagarria izan beharko dute, Donostia Zinemaldian egindako antzeko ezaugarriak dituzten zuzeneko eta telebistarako lan teknikoak egiteko.
Honako hauek beharko dira, gutxienez:

- FOH mahairako teknikari 1
- Monitoreen mahairako teknikari 1
- Hizkuntza-mahairako teknikari 1
- 2 mikrofono-teknikari

3.- Kursaaleko auditoriumean egingo diren Sail Ofizialeko aurkezpenetarako talde teknikoa

- FOH mahairako teknikari 1, antzeko jardueretan gutxienez 3 urteko esperientzia frogagarria duena.

Langileen lan-plangintza Zinemaldiko ekoizpen departamentuak ezarriko du, edizio bakoitzeko Galetarako beharren arabera, eta urte batetik bestera alda daiteke.

V.- AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

Jarraian Donostia Zinemaldiaren 70. Ediziorako aurreikusitako egutegia zehazten da. Erreferentziatzat hartzeko baliagarria da soilik.

- **Irailaren 12a:** Muntaia
- **Irailaren 13tik 15era:** Muntaiaren jarraipena eta probak
- **Irailaren 16a:** Entseguak eta Inaugurazio Gala
- **Irailaren 17tik 23ra:** 2 edo 3 aurkezpen egunean, programazioaren arabera.
- **Iraila (data oraindik zehazteke):** Donostia Sariaren Gala(k)
- **Irailaren 24a:** Klausura Gala